Fitxategiaren arduraduna:

Arabako Foru Aldundia; fitxategia kudeatzea eta zaintzea Zuzeneko Laguntzen Zerbitzuaren buruaren ardura da.

1.25 FITXATEGIA “LIBURUTEGIKO ERABILTZAILEAK”

Fitxategiaren epigrafea aldatzea. Izen berria: “Kultura etxeko jarduerak”.

1.27 FITXATEGIA “AGIRITEGI OROKORREKO ERABILTZAILEAK”

Fitxategiaren arduraduna:

Arabako Foru Aldundia; fitxategia kudeatzea eta zaintzea Agiritegi Zerbitzuaren buruaren ardura da.

1.32 FITXATEGIA “GIZARTE GAIEN IKUSKARITZA”

Fitxategiaren arduraduna:

Arabako Foru Aldundia; fitxategia kudeatzea eta zaintzea Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailetza Zerbitzuaren buruaren ardura da.

1.38 FITXATEGIA “KIROLARIAK”.

Fitxategiaren arduraduna:

Arabako Foru Aldundia; fitxategia kudeatzea eta zaintzea Kirol Zerbitzuaren buruaren ardura da.

1.42 FITXATEGIA “ARTEAREN MUNDUA”

Fitxategiaren arduraduna:

Arabako Foru Aldundia; fitxategia kudeatzea eta zaintzea Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren buruaren ardura da.

1.45 FITXATEGIA “ERREGISTRO OFIZIALAK”

Fitxategiaren arduraduna:

Arabako Foru Aldundia; fitxategia kudeatzea eta zaintzea Zuzeneko Laguntzen Zerbitzuaren buruaren ardura da.

1.48 FITXATEGIA “EUROPAKO GAIAK”

Fitxategiaren arduraduna:

Arabako Foru Aldundia; fitxategia kudeatzea eta zaintzea Europako Gaietarako Zerbitzuaren buruaren ardura da.

1.54 FITXATEGIA “ARKEOLOGIA ONDAREA”

Fitxategiaren arduraduna:

Arabako Foru Aldundia; fitxategia kudeatzea eta zaintzea Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren buruaren ardura da.

1.57 FITXATEGIA: “BAIMENEN ERREGISTROA”

Fitxategiaren arduraduna:

Arabako Foru Aldundia; fitxategia kudeatzea eta zaintzea Parke Naturalen Zerbitzuaren buruaren ardura da.

1.58 FITXATEGIA “ZAHARBERRIKUNTZA”.

Fitxategiaren arduraduna:

Arabako Foru Aldundia; fitxategia kudeatzea eta zaintzea Zaharberrikuntza Zerbitzuaren buruaren ardura da.

1.60 FITXATEGIA “FRANKISMOAREN ERREPRESALIATUAK”.

Fitxategiaren arduraduna:

Arabako Foru Aldundia; fitxategia kudeatzea eta zaintzea Agiritegi Zerbitzuaren buruaren ardura da.

Responsable del fichero:

Diputación Foral de Álava, correspondiendo su gestión y custodia a la Jefatura del Servicio de Ayudas Directas.

1.25 FICHERO “USUARIOS BIBLIOTECA”

Cambio epígrafe de Fichero: Nueva denominación: “Actividades Casa de Cultura”.

1.27 FICHERO “USUARIOS ARCHIVO GENERAL”

Responsable del fichero:

Diputación Foral de Álava, correspondiendo su gestión y custodia a la Jefatura del Servicio de Archivos.

1.32 FICHERO “INSPECCIÓN ASUNTOS SOCIALES”

Responsable del fichero:

Diputación Foral de Álava, correspondiendo su gestión y custodia a la Jefatura del Servicio de Registro e Inspección de Servicios Sociales.

1.38 FICHERO “DEPORTISTAS”

Responsable del fichero:

Diputación Foral de Álava, correspondiendo su gestión y custodia a la Jefatura del Servicio de Deporte.

1.42 FICHERO “MUNDO ARTÍSTICO”

Responsable del fichero:

Diputación Foral de Álava, correspondiendo su gestión y custodia a la Jefatura del Servicio de Museos y Arqueología.

1.45 FICHERO “REGISTROS OFICIALES”

Responsable del fichero:

Diputación Foral de Álava, correspondiendo su gestión y custodia a la Jefatura del Servicio de Ayudas Directas.

1.48 FICHERO “ASUNTOS EUROPEOS”

Responsable del fichero:

Diputación Foral de Álava, correspondiendo su gestión y custodia a la Jefatura del Servicio de Asuntos Europeos.

1.54 FICHERO “PATRIMONIO ARQUEOLÓGICO”

Responsable del fichero:

Diputación Foral de Álava, correspondiendo su gestión y custodia a la Jefatura del Servicio de Museos y Arqueología.

1.57 FICHERO “REGISTRO DE AUTORIZACIONES”

Responsable del fichero:

Diputación Foral de Álava, correspondiendo su gestión y custodia a la Jefatura del Servicio de Parques Naturales.

1.58 FICHERO “RESTAURACIÓN”

Responsable del fichero:

Diputación Foral de Álava, correspondiendo su gestión y custodia a la Jefatura del Servicio de Restauración.

1.60 FICHERO “PERSONAS REPRESALIADAS DEL FRANQUISMO”

Responsable del fichero:

Diputación Foral de Álava, correspondiendo su gestión y custodia a la Jefatura del Servicio de Archivos.

*Foru Aginduak*

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**5721**

**527/2013 FORU AGINDUA, urriaren 24koa, onartzen duena Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren irailaren 3ko 426/2013 Foru Aginduak ezarritako baldintzak bete direla. Azken foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Dulantziko herrigune historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren 7. aldakuntzaren espedientea.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Irailaren 3ko 426/2013 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartu zen Dulantziko herrigune historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren 7. aldakuntzaren espedientea. Aldaketa alderdi hauen arauketari buruzkoa da: etxebizitza erabilera beheko

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**5721**

**ORDEN FORAL 527/2013, de 24 de octubre, aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral 426/2013, de 3 de septiembre, de la Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, por la que se aprobó definitivamente el expediente de 7ª modificación del Plan Especial de Rehabilitación Integrada del Centro Histórico de Alegría-Dulantzi.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Por Orden Foral 426/2013, de 3 de septiembre, quedó definitivamente aprobado el expediente de la 7ª modificación del Plan Especial de Rehabilitación Integrada del Centro Histórico de Alegría-Dulantzi, relativa a la regulación del uso de vivienda en planta

solairuan; eraikinetako errotuluak, eguzki oihalak eta gainean jarritako bestelako eraikuntza elementuak; eta hiri altzariak.

Bigarrena.- Foru Agindu horrek berak ezarri zuen espedientea zuzenean Foru Aldundira igortzeko, behin betebeharrekoak bete ondoren, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela kontuan hartuta, berriro jendaurreko izapidea bete beharrik gabe, betearazpena deklaratzeko, bai eta eginbidea egiteko eta argitaratzeko ere.

Hirugarrena.- 2013ko urriaren 17an izan zuen sarrera aldundiaren erregistroan espediente horren testu bateratuak.

II.- OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatu da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honakoa

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren irailaren 3ko 426/2013 Foru Aginduak ezarritako baldintzak betetzat jotzea. Agindu horren bidez behin betiko onartu zen Dulantziko herrigune historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren 7. aldakuntzaren espedientea, zein alderdi hauen arauketari buruzkoa baita: etxebizitza erabilera beheko solairuan; eraikinetako errotuluak, eguzki oihalak eta gainean jarritako bestelako eraikuntza elementuak; eta hiri altzariak.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, hirigintza araudiarekin batera.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta bere aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 24a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

**DULANTZIKO HERRIGUNE HISTORIKOAREN BIRGAITZE INTEGRATUKO PLAN BEREZIAREN 7. ALDAKUNTZA**

Honako artikulu eta idatz zatien idazketa berria: 38 artikulua 3.14 eta 3.15 idatz zatiak; 43. artikulua, eguzki oihalen eta markesinen arauketa; 44. artikulua, errotuluak eta xaflak; 50. artikulua, hiri altzarien ezaugarriak; eta 55. artikulua, baimendutako erabilerak. 1. idatz zatia

**38. artikulua. 3.14 idatz zatia.- Ateak.**

a) Diseinua. Proportzionaltasun bertikalekoa izango da, garajeetan izan ezik non, gehienez, 2,50 metroko zabalera izan ahalko da.

Erakusleihoaren eta beheko solairura sartzeko atearen planoa atzeraemango da, gutxienez, 25 cm, fatxadaren lerrokadurarekiko, eta gehienez 40 cm.

Ateetako planoetan adierazitakoak baino atzeraemangune handiagoak onartuko dira, aplikatu behar den arautegi tekniko edo sektorekoak atea hustutzeko norabidean jartzera behartzen duenean, eta horrela egin ahal izateko fatxadaren planoarekiko behar den atzeraemangunea egingo da.

b) Materialak. Egur bernizatua edo tono ilunetan margotua.

**38. artikulua, 3.15. idatz zatia.- Eguzki oihalen, iragarkien, markesinen eta iragarki panelen arautegia.**

Beheko solairuko baoetan integratutako iragarkiak baimentzen dira, betiere, fatxadaren planotik ateratzen ez badira, horien eraketa eta materialei dagokienez askatasuna egongo dela. Ez da iragarki, errotulo edo erakargarririk baimentzen beheko solairuaren gaineko solairuetan, izaera publikoko ekipamendu komunitarioak badira eta errotulua fatxadaren konponbide orokorretan txertatua badago izan ezik.

Beheko solairuan, fatxadaren paramentuaren gainean errotulua edo iragarkia jarri ahalko da, gehienez 40 cm luze eta 10 cm hegal izango dena, horien eraketa eta materialei dagokienez askatasuna egongo dela, baina plastifikatuak debekatuak egongo dira. Neurri horiek gainditluz gero, udalbatzaren oniritzia beharko da, dagokion udal teknikariak txostena eman ondoren. Edozein modutan ere, eraikuntza

baja, rótulos, toldos y otros elementos superpuestos a la edificación y mobiliario urbano.

Segundo.- La misma Orden Foral, considerando que las condiciones señaladas no eran sustanciales estableció que, una vez subsanadas, se elevase el expediente a la Diputación Foral sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Con fecha 17 de octubre de 2013, tuvo entrada en el Registro de esta Diputación el texto refundido del expediente.

II.- FUNDAMENTOS

Analizada la documentación aportada se comprueba que se ha dado cumplimiento a las condiciones impuestas en la Orden Foral mencionada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Dar por cumplidas las condiciones impuestas en la Orden Foral 426/2013, de 3 de septiembre, de la Diputada Foral de Medio Ambiente y Urbanismo, por la que se aprobó definitivamente el expediente de la 7ª modificación del Plan Especial de Rehabilitación Integrada del Centro Histórico de Alegría-Dulantzi, relativa a la regulación del uso de vivienda en planta baja, rótulos, toldos y otros elementos superpuestos a la edificación y mobiliario urbano.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA junto con la normativa urbanística.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 24 de octubre de 2013.– La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

**7ª MODIFICACIÓN DEL PLAN ESPECIAL DE REHABILITACIÓN INTEGRADA DEL CENTRO HISTÓRICO DE ALEGRÍA-DULANTZI**

Nueva redacción de los artículos 38, apartados 3.14 y 3.15; 43, regulación de toldos y marquesinas; 44, rótulos y placas; 50, condiciones de mobiliario urbano y 55, usos permitidos. Apartado 1

**Artículo 38. Apartado 3.14.- Puertas.**

a) Diseño. Será de proporción vertical, salvo la de garajes que podrá tener una anchura máxima de 2,50 m.

El plano del escaparate y puerta de acceso a planta baja se retranquearán como mínimo 25 cm. con respecto a la alineación de la fachada y 40 cm. como máximo.

Se podrán realizar retranqueos de los planos de puertas superiores a los indicados en los casos en que la normativa técnica o sectorial aplicable requiera que la apertura de la puerta se realice en el sentido de la evacuación, incrementando el retranqueo respecto al plano de fachada el espacio necesario para poder realizar dicha apertura.

b) Materiales. Madera barnizada o pintada en tonos oscuros.

**Artículo 38, apartado 3.15.- Regulación de toldos, anuncios, marquesinas y vallas publicitarias.**

Se autorizan los anuncios integrados dentro de los huecos de la planta baja, siempre que no sobresalgan del plano de fachada, con libertad de composición y materiales. No se autoriza ningún tipo de anuncio, rótulo o reclamo en plantas superiores a la baja, salvo que se trate de equipamientos comunitarios de carácter público y el correspondiente rótulo se halle integrado en las soluciones generales de la fachada.

Se admitirá así mismo la instalación del rótulo o anuncio en planta baja sobre el paramento de fachada con un tamaño máximo de 40 cm. de altura y 10 cm. de vuelo, con libertad de composición y materiales, prohibiéndose en tales casos los plastificados. En el caso de sobrepasar dichas dimensiones, deberá contar con el visto bueno de la corporación municipal, previo informe del técnico

ordenantza bete beharko dute, lodiera eta jar daitekeen altura arautzen baitu, besteak beste.

Betiere, CTE DB-SUA bete beharko du; 68/2000 Dekretua, irisgarritasunaren arau teknikoena eta eraikuntza ordenantza.

Jarduerarekin loturiko jarduera iraunkorrak iragartzeko xaflak ere jarri ahalko dira dagokion atariko alboetako ostikoetako aurrealdean, gehienez, 30 x 30 eta 4 cm-ko hegal direnak, aurreko paragrafoan adierazitako material berberak erabilita.

Udalak uko egin ahalko dio iragargiak jartzeko baimena emateari, eraikinaren ingurumen inguruarentzat egoki ez direla irizten badio.

Markesinak jartzea debekatua dago.

Era berean, bandera itxurako errotuloak beheko solairuan jartzea debekatua dago, botika eta larrialdi zerbitzuetan izan ezik, eta kasu horietan plastifikatuak eta argidunak izan ahalko dira, baina keinukaririk gabe; gehienez, 70 cm-ko hegal izan ahalko dira beheko solairuko fatxadatik, 60 cm-ko altura eta 15eko kantua, eta azpiko ertzaren espaloiarekiko gutxieneko altura 2,20 metrokoa.

Egun dauden elementuak, ordenantza hauetan ezarritako betebeharrekin bat ez datozenak, ezingo dira eraberritu, ez zati batean ez osotasunean, ez bada xedapen horietara batzeko dagokion eraldaketa burutu delako.

Eguzki oihalak onartzen dira BEPBaren 43. artikuluak xedatutako baldintzekin bat.

Iragarki panelak. Iragarki panelak edo elementuak jarri ahalko dira udalak, dagokion txosten teknikoa eman ondoren, adierazten dituen erabilera publikoko espazio libreetan.

**43. artikulua.- Eguzki oihalen eta markesinen arauketa.**

Eguzki oihalak eta markesinak. Bizitegi erabilera ez duen beheko solairuetan eguzki oihalak jar daitezke, Dulantziko Udalean indarrean den eraikuntza udal ordenantzak arautu eta xedatutako baldintzekin bat. Goiko solairuetan jartzea, berriz, debekatua dago. Dena den, udalak kolore, material, kokapen eta neurriei buruzkoetan baldintzak ezarri ahalko ditu, eguzki oihalean publizitatea agertzen bada.

Markesinak jartzea debekatua dago.

**44. artikulua.- Errotuluak eta xaflak.**

1.- Errotuluak beheko solairuan.

Onartuko dira 38. artikuluko 3.15 idatz zatian xedatutakoarekin bat.

2. Errotuloak etxebizitzetan.

Bandera bertikal erakoak eta faxadako zati finkoetan baino ez dira baimenduko. Solairuko bat baino ez da baimentzen. Bera jarrita dagoen solairuko zoruaren mailatik gutxienez 0,90 metrora egon beharko da haren beheko partea.

Iragarkia 0,90 metro garai, 0,30 zabal eta 0,10 lodi izango den prisma zuzenean grabatzeko modukoa izan beharko da. Gehienez, 0,60 metro atera ahalko da.

3.- Xaflak.

Honakoaren arabera baimentzen dira:

- Atariko ate-zangoetan, 1,60 eta 2.00 metro bitarteko alteran jarriz gero, edo beheko solairuko fatxaden aurreko aldean, leihoen eta ateen arteko hutsuneetan, eta 1,60 metrotik gora jarrita, baina beheko solairuko hutsuneetako ateburua gainditu gabe.
- Bere neurriak, gehienez, honakoak izango dira: 0,60 x 0, 40, eta 0,02 lodi.
- Osaera librea izango da.

Bizitegitarako ez den erabilerako lokaletan ezingo dira bi xafla baino gehiago ipini lokal bakoitzeko.

Xaflak edo errotuluak jartzeko eskaerarekin bat jabeen erkidegoaren baimena aurkeztu beharko da, kasua hori denean.

4.- Eraikinei erantsitako bestelako eementuak.

Eraikinei besletako elementuan gainjarri ahalko zaizkio, besteak beste: segurtasun kamerak, alarma kutxak, instalazio pribatuko argi elementuak, beti ere espaloi edo espazio publikoko sestraren gainetik

municipal correspondiente. Deberán cumplir en todo caso la ordenanza de la edificación, que regula su espesor y la altura de colocación entre otros parámetros.

En cualquier caso deberá cumplir con el CTE DB-SUA, el Decreto 68/2000 de normas técnicas de accesibilidad y la ordenanza de la edificación.

Se admiten asimismo la colocación de placas anunciadoras de actividades de carácter permanente sobre el frente de los machones laterales del portal correspondiente al ejercicio de la actividad, con unas dimensiones máximas de 30 x 30 y vuelo máximo de 4 cm. en los mismos materiales indicados en el párrafo precedente.

El Ayuntamiento podrá denegar la autorización para colocar anuncios, cuando estime que los mismos no resultan adecuados al entorno ambiental del edificio.

Se prohibe la colocación de marquesinas.

Se prohiben así mismo, los rótulos en banderola en planta baja, salvo para farmacias y servicios de urgencia, pudiendo en tal caso ser plastificados y luminosos sin intermitencia, con un vuelo máximo de 70 cm. desde fachada de planta baja, altura máxima de 60 cm. y canto máximo de 15, con borde inferior situado a 2,20 m. de altura mínima sobre la acera.

Los elementos existentes actualmente y que no se ajusten a las prescripciones establecidas en estas ordenanzas, no podrán ser restaurados en todo ni en parte, a menos que sufran la correspondiente transformación al objeto de sujetarse a dichas disposiciones.

Se admiten los toldos, con las condiciones establecidas en el artículo 43 del PERI.

Vallas publicitarias. Se admitirá la colocación de vallas o elementos publicitarios en espacios libres de uso público designados por el Ayuntamiento previo informe del técnico municipal correspondiente.

**Artículo. 43.- Regulación de toldos y marquesinas.**

Toldos y marquesinas. Se admiten los toldos en planta baja para uso no residencial, de acuerdo con la regulación y condiciones establecidas en la Ordenanza Municipal de edificación vigente del Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi. Queda prohibida su instalación en plantas superiores. En cualquier caso el Ayuntamiento podrá establecer condiciones respecto al color, materiales o la ubicación y dimensiones en su caso de publicidad en el toldo.

Se prohibe la colocación de marquesinas.

**Artículo 44.- Rótulos y placas.**

1.- Rótulos en planta baja.

Se admiten en las condiciones establecidas en el artículo 38, apartado 3.15.

2.- Rótulos en pisos.

Sólo se autorizan en forma de bandera vertical, sobre zonas macizas de fachada. Solamente se autoriza uno por piso. Su parte inferior estará, al menos, a 0,90 m. del nivel del suelo del piso en que se sitúe.

El anuncio deberá ser inscribible en un prisma recto de 0,90 m. de altura, 0,30 m. de anchura y 0,10 m. de grueso. El saliente máximo autorizado será de 0,60 m.

3.- Placas.

Se autorizan siempre que:

- Se sitúen en las jambas de la puerta del portal, a una altura comprendida entre 1,60 y 2,00 m, o en el frente de las fachadas en planta baja entre huecos de ventanas y puertas y a una altura superior a 1,60 m. y no superior a la del dintel de los huecos de planta baja.
- Sus dimensiones máximas serán: 0,60 x 0,40, con un espesor de 0,02m.
- La composición será libre.

En el caso de locales de uso no residencial, no se podrán colocar más de dos placas por local.

La solicitud para la colocación de placas o rótulos deberá acompañarse en su caso de la autorización de la comunidad de propietarios.

4.- Otros elementos superpuestos a la edificación.

Se podrán disponer otros elementos superpuestos a la edificación tales como: cámaras de seguridad, cajas de alarmas, elementos de iluminación pertenecientes a la instalación privada siempre que estos se sitúen

2,50 metrora badago gutxienez, eta beraiek jarrita dauden fatxadatik 20 cm baino ez baira ateratzen. Altura hori 2.20 metrora murriztu ahalko da lokalaren alturak ez badu ahalbidetzen 2,50 metrora jartzea. Edozein modutan ere, eraikinaren beheko solairuan jarri beharko dira.

**50. artikulua.- Hiri altzarien baldintzak.**

1.- Elementuak. Honako elementuak sartzen dira idatz zati honetan:

- Iturriak, eserlekuak eta itxiturak.
- Kioskoak, telefono-kabinak eta paperontziak.
- Kale, monumentu eta ibilbideak seinalatzekoak.
- Trafiko seinaleak, semaforoak eta kaleen itxieraz ohartaraztekoak.
- Oinezkoentzako babesgarriak, defentsak, eskudelak eta eskubandak.

Artikulu honetan arautukakoen artean ez dauden elementuak jartzea baimendu ahalko da udalbatzaren oniritzia badago eta eskumena duen udal teknikariak txostena eman ondoren.

2.- Kalitateak. Espazio desberdinetan dagozkion tratamenduen araberakoak izango dira. Oro har, honakoak onartuko dira: harri naturala, egur natural edo margotua, burdin margotua, aluminio lakatu eta anodizatua edo bere kolorean, altzairu herdoilgaitz eta pintatua, brontzea eta letoia.

3.- Koloreak. Trafiko seinaleetarako normalizatutako koloreen kasuan izan ezik, koloreak izango dira, harrien kasuan, naturala, eta egur edo burdin margotuan zein aluminio lakatuaren kasuan, tradizionalak direnak.

4.- Testura. Materialarena berarena.

**55. artikulua.- Baimendutako erabilerak.**

1.- Etxebizitza erabilera

Planaren eremu osoan baimentzen da, beste erabileretara baino ez diren eraikinetan edo etxebizitza erabilerarekin bateragarri ez den beste tipologiako eraikinetan izan ezik.

Etxebizitza erabilera xede duen eraikinean, estalkiaren azpian zuzenean dagoen espazioa etxebizitza gisa erabili ahalko da haren azpian dagoen etxebizitzaren luzapena edo osagarria bada erabilera hori, eta bi espazioak loturik egon beharko dute barneko eskailera autonomoaren bidez, zein okupazio, malda eta mailen arteko pasoa ohikoa izango baitu (17x 29 cm). Kasu horietan “Velux” motako edo antzeko leiho bat jarri ahalko da gela bakoitzean.

Salbuespenez, estalkipean zuzenean dagoen etxebizitza onartuko da fatxada batera, gutxienez, baoak dituenean eta ez bestela, horrela 17.11 artikuluak araututako baldintzen arabera kanpo-etxebizitzatzat jo ahalko baita.

Beheko solairuko etxebizitza baimenduko da BEPBaren baitako baldintzak eta Dulantziko eraikuntza ordenantzan ezarritakoak betetzen badira. Fatxadaren lerrokadurei dagokienez, BEPBko fitxetan ezarritakoak beteko dira. Kanpo-etxebizitzatzat hartuko da 17.11 artikuluak araututako baldintzen arabera.

Hori guztia bizigarritasunerako gutxieneko baldintzak betetzearekin batera.

Barne-etxebizitzak erabat debekatzen dira.

a una altura mínima de 2,50 metros sobre la rasante de la acera o espacio público y no sobresalgan más de 20 cm de la fachada en la que se sitúan. Dicha altura se podrá reducir a 2,20 metros en los casos en que la altura del local no permita colocarlo a 2,50 metros. En cualquier caso deberán colocarse en la planta baja de la edificación.

**Artículo 50.- Condiciones de mobiliario urbano.**

1.- Elementos. Se incluyen en este apartado los siguientes elementos:

- Fuentes, bancos y cierres.
- Kioskos, cabinas telefónicas y papeleras.
- Señalizaciones de calles, monumentos e itinerarios.
- Señalizaciones de tráfico, semáforos y cierres de calles.
- Protecciones de peatones, defensas, barandillas y pasamanos.

Se podrá autorizar la colocación de otros elementos no incluidos entre los regulados en el presente artículo, siempre que cuente con la aprobación de la corporación municipal y previo informe del técnico municipal competente.

2.- Calidades. Dependerá de los tratamientos correspondientes en los diferentes espacios. En general se admitirán las de piedra natural, madera natural o pintada, hierro pintado, aluminio lacado y anodizado o en su color, acero inoxidable y pintado, bronce y latón.

3.- Colores. A excepción hecha de los elementos de colores normalizados tales como las señales de tráfico, los colores serán los naturales en las piedras y los tradicionales en madera pintada, en hierro pintado y aluminio lacado.

4.- Textura. La propia del material.

**Artículo 55.- Usos permitidos.**

1.- Uso de vivienda

Se permite en todo el ámbito del plan, excepto en edificios íntegramente destinados a otros usos, o en edificios cuya tipología fuese incompatible con el uso de vivienda.

En cada edificio destinado al uso de vivienda, el espacio situado directamente bajo la cubierta podrá destinarse al uso de vivienda solamente si este uso es prolongación o complemento de la vivienda de la planta inmediatamente inferior, debiendo estar comunicados entre sí ambos espacios por escalera interior autónoma de ocupación, pendiente y paso de peldaño ordinarios (17 x 29 cm.). En estos casos podrá permitirse la instalación de una ventana tipo “Velux” o similar para cada habitación destinada a estancia.

Excepcionalmente se permite la vivienda situada únicamente en la planta bajo cubierta cuando ésta presente huecos al menos a una fachada, de forma tal que pueda ser considerada vivienda exterior según las condiciones reguladas en el artículo 17.11.

Se permite la vivienda situada únicamente en planta baja, siempre que esta cumpla con las condiciones establecidas en la regulación del PERI, y con las condiciones establecidas en la ordenanza de edificación de Alegría-Dulantzi. Respecto a las alineaciones de fachada, se cumplirá con las establecidas en las fichas del PERI. Deberá ser considerada vivienda exterior según las condiciones reguladas en el artículo 17.11.

Todo ello, sin perjuicio del cumplimiento de las condiciones mínimas de habitabilidad.

Quedan totalmente prohibidas las viviendas interiores.

## Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

*Udal Zerga eta Katastro Zerbitzua*

**5707**

**Interesdunei jakinarazi ezin izan zaizkien jakinarazpenak**

Administrazioari ez dagozkion arrazoiengatik ondokoei ezin izan zaie jakinarazi honako informazioa; beraz, Arabako Zergei buruzko

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

*Servicio de Tributos Locales y Catastro*

**5707**

**Notificaciones que no se han podido practicar a los interesados**

En virtud de lo dispuesto en el artículo 108 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, (Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero)